

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezereekin harremana iragarkien bidez indartuko dugu. Eguneroko bizitza egin ahala, bezereok, gure iragarkiak ikusi eta entzungo dituzte garraio publikoan, irratian, Interneten... .



- Bizkaibuseko autobusaren eta gure zerbitzura dauden autobusen kanpoaldean iragarkiak jarriko ditugu, baita autobuseko geltokietan ere.
- Gure bulego nagusia egongo den herrian, Ondarroan, kale guztietan zehar publizitate-kartelak jarriko ditugu. Horretaz gain, gure inguruko herrietan ere kartelak itsatsiko ditugu, bertan baitaude Ondarroara gure zerbitzura ekartzen dituzten bezereok biltzeko guneak geltokietan.



- Irratiko komunikazioa oso garrantzitsua da enpresaren izena ezagutzeko. Euskal Herriko irratikate ezagunetariko batean (Gaztea) ere gure enpresaren ideia jarriko ditugu. Irratikate ezaguna denez, Euskal Herri osoan zehar zabaltzeko aukera izango genuke. Horrela adin guztietako jendea erakarriko genuke, izan ere, Gaztea irratian gaur egungo abestiak entzuten dira eta era berean, Euskal Herriko albisteak ere bai.



- Baina, batez ere, sare-sozialen bidez zabalduko dugu enpresaren izena. Gaur egun, enpresa gehienak sare sozial bidez zabaltzen dira eta guk ere ideia bera dugu. Sare-sozial ezagunenetan sartuko ginateke: Instagram, Twitter, Facebook, Whatsapp... Horrela, batez ere, jende gaztearen interesa erakarriko genuke eta era berean, jende nagusiagoarena ere.



- Youtube-ko kanal bat ere prestatuko eta antolatuko dugu. Astero 5-15 minutu bitarteko bideo bat igoko dugu. Bideoan gure zer bezereok bizi dituzten "egun ondarrutarren" zatiak grabatuko ditugu. Horrela, internautek esperientzia nolakoa den ikusiko dute haien etxeetatik mugitu gabe. Neurri honi esker, bezereok engainuaren aurka prebenitzen ditugu, espero dutena jasoko baitute gure zerbitzua kontratatuz gero.